



## 187 EREDUA AURKEZTEKO DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK

### ERREGISTROEN AZALPENA

Aitortzaile bakoitzeko, bi erregistro mota desberdin sartuko dira. Horiek lehen posizioagatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

**1. mota: Aitortzailearen erregistroa:** identifikazio datuak eta aitortpenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azaltzen dena.

**2. mota: Eragiketaren erregistroa.** 2. motako erregistroaren diseinua, eranski honetan bertan aurrerago azaltzen da.

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren araberakoa izango da. 1. motarako, erregistro bakarra egongo da, eta 2. motarako, berriz, aitortpenean jasotako eragiketak aduna erregistro.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkeraldera lerrotatuko dira oro har, eta eskuinaldetik zuriunez beteak agertuko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balorea izango da (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen eta ezkeraldetik zeroz beteak agertuko dira, zeinurik gabe eta trinkotu gabe.

Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu guztiek izango dute edukia. edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, eta alfabetiko/alfanumerikoak zuriunez joango dira



## 187 EREDUA

### A. 1. motako erregistroa: AITORTZAILEAREN ERREGISTROA

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
1	Numerikoa	<b>ERREGISTRO MOTA</b> Zenbaki finkoa: «1».
2-4	Numerikoa	<b>AITORPEN EREDUA</b> «187» konstantea.
5-8	Numerikoa	<b>EKITALDIA</b> Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira.
9-17	Alfanumerikoa	<b>AITORTZAILEAREN IFZ</b> Aitortzailearen IFZ jarriko da.  Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.
18-57	Alfanumerikoa	<b>AITORTZAILEAREN SOZIJETATE IZENA EDO IZENDAPENA</b>  Sozietate izen edo izendapen osoa jarriko da, anagramarik gabe. Eremu honetan ezin da inolaz ere ida tzi merkataritza izenik.
58	Alfabetikoa	<b>EUSKARRI MOTA</b> Gako hauetako bat jarriko da: «C»: Informazioa CD-Rean aurkezten bada. «D»: Informazioa disketean aurkezten bada. «T»: Informazioa telematikoki aurkeztuz gero.
59-107	Alfanumerikoa	<b>HARREMANETARAKO PERTSONA</b>  Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da:  59-67: Telefonoa: Bederatzi posizioko eremu numerikoa.  68-107: Deiturak eta izena: Jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez.
108-120		<b>ZURIUNEAK</b>
121-122	Alfabetikoa	<b>AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKO AITORPENA</b>  Aurkezten dena bigarren edo orderengo aitortpen bat denean, honako eremu hauetako bat beteko da nahitaez:

121: Aitorpen osagarria: «C» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia lehenik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean aipatu gabe utzi ziren datuak sartzea bada.

122. Ordezko aitorpena: «S» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia ekitaldi bereko aurreko aitorpen bat baliogabetu eta erabat ordeztea bada. Ordezko aitorpenak aurreko aitorpen bat bakarrik baliogabetu dezake.

**123-135**

**ZURIUNEAK**

**136-144 Numerikoa**

**ERAGIKETA KOPURU OSOA**

Aitortuen erregistro kopuru osoa jarriko da.  
(2 motako erregistro kopurua).

**145-159 Numerikoa**

**ESKURAPENEN ZENBATEKO OSOA**

Adierazi zeinurik eta dezimalik gabe inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskuratzeko egindako eragiketen zenbatekoen batura osoa. Zenbatekoak euro zentimotan adierazi behar dira.

**160-174 Numerikoa**

**BESTERENTZEEN ZENBATEKO OSOA**

Adierazi zeinurik eta dezimalik gabe inbertsio kolektiboko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioak edo partaidetzak besterentzeko eragiketei eta sozietate edo entitateen funts propioetan parte hartzea adierazten duten baloreetatik datozen harpidetza eskubideen salmentari dagozkien zenbatekoen batura osoa. Zenbatekoak euro zentimotan adierazi behar dira.

**175-189 Numerikoa**

**ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN ZENBATEKO OSOA**

Zeinurik eta hamartarrik gabe jarriko da atxikipenen eta konturako sarreraren eragiketei dagozkien zenbatekoen batura osoa. Zenbatekoak euro zentimotan adierazi behar dira.

**190-500**

**ZURIUNEAK**

\* Zenbateko guztiak positiboak izango dira.

\* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete behar dira.

\* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak bete gabe utzi behar dira.

\* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldeetik zeroz beteak agertuko dira.

\* Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldeetik zuriuneak utziko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta okaletan azenturik jarri gabe.



## 187 EREDUA

### B 2. motako erregistroa:

#### ERAGIKETAREN ERREGISTROA

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
1	Numerikoa	<b>ERREGISTRO MOTA</b> Finkoa: «2»
2-4	Numerikoa	<b>AITORPEN EREDUA</b> «187» konstantea.
5-8	Numerikoa	<b>EKITALDIA</b>  1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da.
9-17	Alfanumerikoa	<b>AITORTZAILEEN IFZ</b>  1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da.
18-26	Alfanumerikoa	<b>AITORTUAREN IFZ</b>  Izaera orokorrez, aitortuaren identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da, 2013ko abenduaren 17ko 7/2013 foru Dekretuak onartutako zerga betebeharrak jakin batzuk garatzen dituen erregelamenduan jasotako arauak jarraituz.  Eremu hau eskuinaldera lerrokatu behar da, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira
27-35	Alfanumerikoa	<b>LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ</b>  Bazkidea edo partaidea 14 urtetik beherakoa bada, eremu honetan bere legezko ordezkariaren ifZ jarri behar da (aitarena, amarena edo tutorearena), 2013ko abenduaren 17ko 7/2013 foru Dekretuak onartutako zerga betebeharrak jakin batzuk garatzen dituen erregelamenduan jasotako arauak jarraituz.  Gainerako kasuetan, eremu honetako edukia hutsuneak izango dira.
36-75	Alfanumerikoa	<b>AITORTUAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIALTATE IZENA EDO IZENDAPENA</b>  Pertsona fisikoak badira, lehen deitura, hutsune bat, bigarren deitura, hutsune bat, eta izen osoa jarriko dira, ordena horretan nahitaez.

Bestela gertatuz gero, sozietatearen izena edo izendapen osoa jarriko da, anagramarik gabe, inolako izen komertzialik agertu gabe

**76-80      Alfanumerikoa**

**PROBINTZIA/HERRIALDE KODEA**

Eremu hau bitan banatuta dago:

— Posizioak: 76-77. Probintzia kodea.

Bi posizioko eremu numerikoa

Bazkide edo partaidearen zerga helbideari dagokion probintzia kodea jarriko da. Bazkide edo partaidearen zerga helbideari dagokion probintzia edo hiri autonomoaren bi digituak agertuko dira, taula honen arabera:

ARABA .....	01	LEON .....	24
ALBACETE .....	02	LLEIDA .....	25
ALACANT .....	03	LUGO .....	27
ALMERIA .....	04	MADRIL .....	28
ASTURIAS .....	33	MALAGA .....	29
AVILA .....	05	MELILLA .....	52
BADAJOS .....	06	MURTZIA .....	30
BARTZELONA .....	08	NAFARROA .....	31
BURGOS .....	09	OURENSE .....	32
CACERES .....	10	PALENTZIA .....	34
CADIZ .....	11	PALMAS, LAS .....	35
KANTABRIA .....	39	PONTEVEDRA .....	36
CASTELLO .....	12	ERRIOXA .....	26
CEUTA .....	51	SALAMANCA .....	37
CIUDAD REAL .....	13	S.C.TENERIFE .....	38
KORDOBA .....	14	SEGOVIA .....	40
CORUÑA, .....	15	SEVILLA .....	41
CUENCA .....	16	SORIA .....	42
GIRONA .....	17	TARRAGONA .....	43
GRANADA .....	18	TERUEL .....	44

GUADALAJARA .....	19	TOLEDO .....	45
GIPUZKOA .....	20	VALENTZIA .....	46
HUELVA .....	21	VALLADOLID .....	47
HUESCA .....	22	BIZKAIA .....	48
BALEARRAK .....	07	ZAMORA .....	49
JAEN .....	23	ZARAGOZA .....	50

Establezimendu iraunkorrik gabeko ez egoiliarak badira, 99 jarriko da

— Posizioak: 78-80. Herrialde kodea.

3 posizioko eremu alfabetikoa

Establezimendu iraunkorrik gabeko zergadun ez-egoiliarak badira, aitortuaren egoitzako herrialde edo lurraldeari dagozkion bi karaktere alfabetikoak jarri behar dira, 2011ko abenduaren 21eko 1070/2011 foru Aginduak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, establezimendu iraunkorrik gabe dihardutenek, ez-egoiliarren kontuengatik lortutako etekinak aitortzeko erabililiko den 291 ereduko aitortpen informatiboa eta aurkezpen moduak onartzen dituenak, III. eranskinean jasotako herrialde edo lurralde gakoan arabera.

Beste edozein kasutan, zuriuneak utziko dira

## 81 Alfabetikoa

### BAZKIDE EDO PARTAIDE MOTA

Bazkide edo partaide mota jarri behar da, balio hauen arabera:

R: errentak establezimendu iraunkor bitartez lortzen dituen egoiliarra eta ez-egoiliarra

N: errentak establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituen ez-egoiliarra.

E: jasotzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergaduna da, eta errenta Zergaren foru Arauaren 4.3 artikuluan aipatutako ez-egoiliarren errentaren zergaren tributazio araubide berezia aplikatuta aitortzen du zerga.

C: atzerriko egoiliarak diren entitateak, inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko 35/2003 legearen erregelamenduaren 21. artikuluan aipatutako inbertsio kolektiboko erakunde espainiarren akzio edo partaidetzak merkaturatu eta beren bezeroen kontura jarduten direnak.

## 82 Alfabetikoa

### BAZKIDE EDO PARTAIDE IZAERA

Bazkide edo partaide izaera jarri behar da, balio hauen arabera

F: pertsona fisikoa

J: pertsona juridikoa.

E: errenten esleipen erregimeneko entitatea

**83-91**      **Alfanumerikoa**

#### **FUNTS EDO SOZIJETATEAREN IDENTIFIKAZIOA**

Inbertsio kolektiboko erakundearen edo kasuan kasuko sozietatearen identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da, zerga Administrazioak emandakoa.

Inbertsio kolektiboko erakundeak edo kasuan kasuko sozietateak ez badu identifikazio fiskaleko zenbakirik, «ZXX» gakoak jarri behar da. Gako horretan, «XX» inbertsio kolektiboko erakundearen edo sozietatearen eraketako herrialde edo lurraldearen bi karaktere alfabetikoak dira, abenduaren 14ko 567/2016 foru Aginduak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, establezimendu iraunkorrik gabe dihardutenek, ezegoiliarren kontuengatik lortutako etekinak aitortzeko erabiliko den 291 ereduko aitortzen informatiboa eta aurkezpen moduak onartzen dituenak, III. eranskinean jasotako herrialde edo lurralde gakoaren zerrendaren arabera.

**92-103**      **Alfanumerikoa**

#### **ISIN KODEA**

Baldin eta aitortutako eragiketan aipatutako baloreei esleitu bazaie Balore Merkatuko Batzorde nazionalaren uztailaren 28ko 1/2010 Arau teknikoan jasotako ISIN kode bat, kode hori jarri behar da

Inbertsio kolektiboko erakundeen kasuan, inbertsio kolektiboko erakundearen akzio edo partaidetzen ISIN kodea jarri behar da, edo, hala badagokio, haien multzoaren edo mota edo seriearen ISIN kodea

**104**      **Alfabetikoa**

#### **ERAGIKETA MOTA**

Eragiketa mota adieraziko da balio hauen arabera:

A»: Eskurapenak, B, I edo R gakoarekin adierazi behar direnak izan ezik.

«B»: Inbertsio kolektiboko erakundearen beste akzio edo partaidetza batzuk aurrez eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako zenbatekoen berrinbertsio diren akzio edo partaidetzen eskurapenak, lortu den ondare irabazi edo galera konputatu gabe utzi bada Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 48. artikularen 1. apartatuan jasotakoaren arabera, salbu eta intsuldaketa eskatzeko idazkian akziodunak edo partaideak Inbertsi kolektiboko erakundeei buruzko 35/2003 Legearen 28.2 artikuluan aipatzen den komunikazioa egin duenean.

«C»: Inbertsio funts kotizatueto partaidetzen besterentzeak (eskualdaketak edo itzulketak) edo SICAV indizeko akzio kotizatuena, Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduko 79. artikuluan aipatuak.

«E»: Besterentzeak (eskualdaketak edo itzulketak), C, F, G, H, J, P, Q edo T gakoarekin adierazi behar direnak izan ezik.

«F»: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 48. artikuluko 1. apartatuan xedatutakoa aplikatzeagatik, ondare irabazi edo galera konputatu behar ez zaien besterentzeak (eskualdaketak edo itzulketak), salbu eta intsuldaketa eskatzeko idatzian akziodunak edo partaideak Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko 35/2003 Legearen 28.2 artikuluan aipatzen den komunikazioa egin duenean.

«G»: «Bazkide edo partaide mota» eremuan «C» gakoarekin adierazi diren eskualdaketak edo itzulketak, barruko zein hitzartutako arau batean ezarritako salbuespena aplikatzeagatik atxikipenik izan ez dutenak foru agindu honen 5. artikuluan aurreikusitako prozedura bereziaren arabera.

«H»: «Bazkide edo partaide mota» eremuan «C» gakoarekin adierazi diren eskualdaketak edo itzulketak, atxikipena izan dutenak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru arauaren 25.1.f).3. artikuluan aurreikusitako karga tasa aplikatuta, foru agindu honen 5. artikuluan aurreikusitako prozedura bereziaren arabera.

«I»: Inbertsio kolektiboko erakundeen beste akzio edo partaidetza batzuk aurrez eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako zenbatekoen berrinbertsio diren akzio edo partaidetzen eskurapenak, lortu den ondare irabazi edo galera konputatu gabe utzi bada Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 48. artikuluan jasotakoaren arabera, intsuldaketa eskatzeko idatzian akziodunak edo partaideak Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko 35/2003 Legearen 28.2 artikuluan aipatzen den komunikazioa egin duenean

«J»: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 48. artikuluko 1. apartatuan xedatutakoa aplikatzeagatik, ondare irabazi edo galera konputatu behar ez zaien besterentzeak (eskualdaketak edo itzulketak), intsuldaketa eskatzeko idatzian akziodunak edo partaideak Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko 35/2003 Legearen 28.2 artikuluan aipatzen den komunikazioa egin duenean

«M»: sozietate edo entitateen funts propioetan parte hartzea adierazten duten baloreetatik datozen harpidetza eskubideen salmenta

«P»: inbertsio funtsen eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateen bat-egite eragiketengatik truke bidez egindako eskualdaketak, ondare irabazia edo galera konputatu behar denean. Gako hau inbertsio kolektiboko erakunde xurgatuak jarri behar du, bategiteari dagokion ekitaldian, Gipuzkoa ko Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluaren ezarritako zerga araubidea aplikatzeko ez denean.



«Q»: Inbertsio funtsen eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateen bat-egite eragiketetatik datozen partaidetzen eskualdaketak edo itzulketak, inbertsio kolektiboko beste erakunde batera egindako traspasoarekin zerikusia dutenak. Gako hau inbertsio funts xurgatzai- learen entitate kudeatzaileak edo merkaturatzaileak jarri behar du, inbertsio kolektiboko beste erakunde batera intsuldaketa egin den ekitaldian, bi baldintza hauek betetzen badira: bat-egitearen ekitaldian Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluaren ezarritako zerga araubidea aplikagarria izatea, eta intsuldaketaren ekitaldian bat-egite horren egunera arte sortutako errentari ez izatea aplikagarria Gipuzkoako Lurralde Historikoko Perso- na Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 27/2014 Foru Arauaren 48.1 artikuluan jasotako zerga araubidea

«R»: Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 29. artikuluko 4. apartatuaren a) edo b) letretan aurreikusitako inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzen harpidetza edo eskurapenak, SICAV sozietateen likidaziotik eratorritako kuotaren berrinber tsi o direnak, baldin eta entitatearen likidaziotik eratorritako errentak ez badira sartu behar zerga oinarrian, Gipuzkoa ko Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hogeita bederatzi -garren xedapen iragankorraren 1. apartatuko b) letran araututako araubidea aplikatzeagatik.

«T»: Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen berrogeita batgarren xedapen iragankorrera bilduta dauden kapital aldakorreko inber tsi o sozietateen likidaziotik ondorioztatutako eskualdaketa (deuseztapena), entitatearen likidaziotik eratorritako errentak zerga oinarrian sartu behar ez direnean Gi puz koa ko Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hogeita bederatzigarren xedapen iragankorraren 1. apartatuko b) letran araututa dagoen berrinbertsio araubidea aplikatzeagatik.

**105-112 Numerikoa**

#### **ERAGIKETA DATA**

Eragiketa motaren arabera, jarri behar da noiz eskuratu edo besterendu den partaidetza, edo noiz saldu diren harpidetza eskubideak. Eremu hau hirutan banatuta dago

105-108: numerikoa Urtea

109-110: numerikoa Hilabetea.

111-112: numerikoa eguna.

**113-128 Numerikoa**

#### **ESKURATUTAKO EDO BESTERENDUTAKO AKZIO EDO PARTAIDETZA KOPURUA/SALDUTAKO HARPIDETZA ESKUBIDEEN KOPURUA**

Eragiketa motaren arabera, adierazi behar da zenbat akzio edo partaidetza eskuratu edo besterendu dituen bazkideak edo partaideak, edo zenbat harpidetza eskubide saldu ditien aitortuak.

Eremu hau bitan banatuta dago:

113-122: numerikoa. Zati osoa. Akzio edo partaidetza kopuruaren zati osoa jarriko da (horrelakorik ez badu, zeroak jarri).

123-128: numerikoa. Zati hamartarra. Akzio edo partaide tza kopuruaren zati hamartarra jarri behar da (horrelakorik ez badu, zeroak jarri).

**129-141 Numerikoa**

#### **ESKURAPEN EDO BESTERENTZEAREN ZENBATEKOA**

Eragiketa motaren arabera, hemen jarri behar da, zeinurik eta dezimalik gabe, zenbatean eskuratu edo besterendu den bazkidearen edo partaidearen akzioa edo partaidetza, edo zenbat lortu den aitortuaren harpidetza eskubideen salmentagatik.

Harpidetza eskubideak sal tzen direnean, aitortuari ordaintzeko atxikipena egitera behartutako entitateak jaso duen kopurua jarriko da, baina zenbateko horri ez zaizkio gutxituko entitate gordailuzainak «Harpidetza gastuak/Harpidetza eskubideen salmentak» eremuan eraginketarengatik aplikatu dituen gastuak (eragiketaren erregistroa den 2. erregistroko 228-240 posizioak).

Atxikitzen behartutako entitateak eragiketan esku hartzen badu gordailuzain gisa nahiz bitartekari finantzario gisa, jasotako zenbatekoari ez zaio gutxituko entitateak gordailuzain gisa jardutean aplikatu dituen gastuen zenbatekoa, eta haiek «Besterentze gastuak/Harpidetza eskubideen salmentak» eremuan jarri behar dira (eragiketaren erregistroa den 2. erregistroko 228-240 posizioak)

Zenbatekoak euro zentimotan adierazi behar dira; beraz, inoiz ez da zenbaki hamartarrik jarriko

**142 Alfabetikoa**

#### **ESKURAPEN EDO BESTERENTZEAREN JATORRIAREN GAKOA**

Eremu honetan jarri behar da zer jatorri duen akzio edo partaidetzen eskurapenak edo besterentzeak, edo harpidetza eskubideen salmentak, gako hauei jarraituz:

«D»: ondasun komunitatearen desegitea edo komuneroen bereizketa.

«C»: ondasun komunaren zatiketa.

«G» Irabazpidezko sozietatea desegitea edo ezkontzako partaidetza araubide ekonomikoa azkentzea

«M»: kosturik gabea, heriotzagatik.

«I»: kosturik gabea, «inter vivos»

«F»: funts edo sozietateen bat-egitea, sozietateen gaineko zergaren Foru Arauak VI. tituluko VII. kapituluaren araudi berezira bildu bada. Gako honetatik kanpo geratuko dira partaideak bat-egite prozesutik bereizteko eskubidea baliatzeagatik egiten diren partaidetza itzulketak.

«E»: atxikipenari edo konturako sarrerari lotu gabeko ondare irabazia edo errenta, baldin eta aurreko gakoetan berariaz sartzen ez diren eragiketak bada.

«H»: Kapital aldakorreko inbertsio sozietateekin egiten diren funtsen bat-egiteak, baldin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak VI. tituluko VII. kapituluan ezartzen duen zerga araubidea aplikagarria bada.

Bat-egite prozesu horren parte diren inbertsio kolektiboko erakunde guztiek adierazi behar dute gako hau.

Orobat, inbertsio kolektiboko beste erakunde bati gerora egindako traspasoetan, gako hau funts xurgatzailearen entitate kudeatzaile edo merkaturatzaileak adierazi beharko du, traspasoaren eskurapen balio eta datatzat bat-egitearen hartu behar direnean.

«J». Kapital aldakorreko inbertsio sozietateekin egiten diren funtsen bat-egiteak, baldin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak VI. tituluko VII. kapituluan ezartzen duen zerga araubidea aplikagarria ez bada.

Bat-egite prozesu horren parte diren inbertsio kolektiboko erakunde guztiek adierazi behar dute gako hau.

«O»: bestelako kasuak. Gako honetan sartuko dira aurreko gakoetan sartu ez diren harpidetza, erosketa, eskualdaketa eta itzulketa kasu arruntak, bai eta harpidetza eskubideen salmentak ere

143 Alfabetikoa

#### **ONDARE IRABAZIA MURRIZTUA(3/2014 FA.REN 1.XEDAPEN IRAGANKORRA)**

«A» gakoa jarri behar da ondare irabazi bat konputatzeko aplikatu bada Gipuzkoako lurralde Historikoko Pertsona fisikoen errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 foru Arauaren lehen xedapen iragankorrean jasotakoa.

Beste edozein kasutan, eremu hau zuriuneak izango dira

144-151 Numerikoa

#### **ESKURAPEN DATA**

«Ondare irabazi murriztua (3/2014 FAren 1. xedapen iragankorra)» eremuak «A» gakoa hartzen duenean, eskualdatutako akzio edo partaidetzen eskurapen data jarriko da.

Eremu hau hirutan banatuta dago:

144-147: numerikoa: urtea

148-149: numerikoa: hilabetea.

150-151: numerikoa: eguna.

152-156

#### **ZURIUNEAK**

157-170 Alfamerikoa

#### **ERAGIKETAREN EMAITZA**

«Eragiketa mota» eremuak «E», «C», «G», «H», «M», «P» edo «Q» balioa hartzen duenean, bazkide edo partaidearen akzio edo partaidetza besterentzeagatik sortutako ondare irabazi edo galeraren zenbatekoa jarri behar da, zeinua eta guzti.

Eremu hau bitan banatzen da:

157: Zeinua: eremu alfabetikoa. Akzio edo partaidetza besteren tzeko eragiketaren ondorioz ondare galera gertatzen bada, «N» jarriko da eremu honetan; bestela gertatuz gero, eremuaren edukia hutsune bat izango da.

158-170: Zenbatekoa. Eremu numerikoa. Zenbatekoak euro zentimotan adierazi behar dira; beraz, inoiz ez da jarriko zenbaki hamartarrik.

#### **171-174 Numerikoa**

#### **ATXIKIPENAREN ETA KONTURAKO SARRERAREN PORTZENTAJEA**

Bakarrik «eragiketa mota» eremuak «E», «M» edo «P» balioa hartzen duenean.

Eremu hau bitan banatuta dago:

171-172: numerikoa. Zati osoa. Portzentajearen zati osoa jarriko da (horrelakorik ez badago, zeroak jarri).

173-174: numerikoa. Zati hamartarra. Portzentajearen zati hamartarra jarriko da (horrelakorik ez badago, zeroak jarri).

#### **175-187 Numerikoa**

#### **ATXIKIPENAREN ETA KONTURAKO SARRERAREN ZENBATEKOA**

Bakarrik «eragiketa mota» eremuak «E», «M» edo «P» balioa hartzen duenean.

Akzioak edo partaidetzak edo aitortuari dagozkion harpidetza eskubideak besterentzeko eragiketan egindako atxikipenaren eta konturako sarreraren zenbatekoa

«Eragiketa mota» eremuan «M» balioa jartzen denean, «Atxikipenaren eta konturako sarreraren portzentajea» eremuan adierazitako atxikipen tasa «Eskurapen edo besterentzearen zenbatekoa» eremuan jarritako kopuruari aplikatutako zenbatekoa izango da.

Zenbatekoak euro zentimotan adierazi behar dira; beraz, inoiz ez da jarriko zenbaki hamartarrik.»

#### **188 Alfabetikoa**

#### **EMAITZA MOTA**

Gako hauetako bat jarri behar da:

«O»: baldin eta «eragiketa mota» eremuan jarritako kodea «E» bada eta partaideak atxikipena edo konturako sarrera egitera behartutako entitateari jakinarazi badio urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako Pertsona fisikoen errentaren gaineko Zergari buruzko erregelamenduak, 110.2 artikuluan eta maia-tzaren 17ko 11/2016 foru Dekretuaren bidez onartutako ez-egoiliarren errentaren gaineko Zergari buruzko erregelamenduak 17.3 artikuluan aipatutako zirkunstantziak gertatzen direla.

Gako hau komunikazio hori egin den kasu guztietan erabili behar da, baita atxikipen oinarririk ez dagoenean ere.

«R»: R gakoa jarri behar da aurreko apartatuan aipatutako zirkunstantziak gertatzen ez diren kasuetan.

**189-201**      **Numerikoa**

### **ESKURAPEN BALIOA**

«Ondare irabazi murriztua (3/2014 fAren 1. xedapen iragankorra)» eremuak «A» gakoa hartzen duenean, eskualdatutako akzio edo partaidetzen eskurapen balioa jarriko da.

Zenbatekoak euro zentimotan adierazi behar dira; beraz, inoiz ez da jarriko zenbaki hamartarrik.

**202-214**      **Numerikoa**

### **2006KO ONDAREAREN GAINEKO ZERGARAKO BALIOA**

«Ondare irabazi murriztua (3/2014 FAren 1. xedapen iragankorra)» eremuak «A» gakoa hartzen duenean, hemen adierazi behar da zer balio duten eskualdatutako akzio edo partaidetzek 2006ko ondarearen gaineko zergaren ondorioetarako.

Zenbatekoak euro zentimotan adierazi behar dira; beraz, inoiz ez da jarriko zenbaki hamartarrik.

**215-227**      **Numerikoa**

### **APLIKATUTAKO MURRIZTAPENA (3/2014 FAREN 1, XEDAPEN IRAGANKORRA)**

«Ondare irabazi murriztua (3/2014 FAren 1. xedapen iragankorra)» eremuak «A» gakoa hartzen duenean, hemen adierazi behar da zenbatean murriztu den ondare irabazia, Gipuzkoako lurralde Historikoko Pertsona fisikoen errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak lehen xedapen iragankorrean jasotakoaren arabera.

Zenbatekoak euro zentimotan adierazi behar dira; beraz, inoiz ez da jarriko zenbaki hamartarrik.

**228-240**      **Numerikoa**

### **BESTERENTZE GASTUAK-HARPIDETZA ESKUBIDEEN SLMENTA**

Harpidetza eskubideak saltzean («Eragiketa mota» eremuko M gakoak), eragiketarik eratortzen diren besterentze gastuen zenbatekoa jarri behar da.

Zenbatekoak euro zentimotan adierazi behar dira; beraz, inoiz ez da jarriko zenbaki hamartarrik.»

**241 Alfabetikoa**

#### **BAZKIDEAK EDO PARTAIDEAK EGINDAKO KONTURAKO ONDAINKETA**

«X» bat jarri beharko da eremu honetan, baldin eta eragiketa ez badago atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta, bazkide edo partaideak konturako ordainketa bat egitea aplikagarri izateagatik, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta zerga be tebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak, 95.2 artikuluan eta ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 51.6 artikuluan xedatzen dutenaren arabera.

Gainerako kasuetan, eremu honek ez du edukirik izango

**242-250 Alfamerikoa**

#### **LIKIDATUTAKO EDO LIKIDAZIOAN DAGOEN SOZIETATEAREN IDENTIFIKAZIOA**

Eragiketa mota «R» denean, eremu honetan jarriko da Zerga Administrazioak SICAV sozietateari emandako identifikazio fiskaleko zenbakia, haren likidaziotik ondorioztatuko kuotak berrinbertitu badira azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 29. artikuluko 4.apartatuaren a) edo b) letretan aurreikusitako inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak edo partaidetzak eskuratu edo harpidetzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hogeita bederatzigarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoarekin bat etorriz.

**251-500**

#### **ZURIUNEAK**

- \* Zenbateko guztiak positiboak izango dira
- \* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
- \* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak bete gabe utzi behar dira
- \* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.
- \* Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldeetik zuriuneak utziko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.